



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

Erik Nielsen
Zuzendari Titularra

DENBORALDI SINFONIKOA
GANBERAKO DENBORALDIA

23 | 24

A photograph of a woman with dark hair lying down with her eyes closed, resting her head on a white piano keyboard. Her hand is also resting on the keys. The background is dark, and the lighting is soft, highlighting her face and the keyboard.

EN TZU TEN jakin



Erik Nielsen
Zuzendari Titularra





Denboraldi Sinfonikoa 2023-2024

XX Century Classics

Gaur egungo orkestra sinfonikoen erreperitorioa 350 urteko paisaia zabal bat da. Barrokotik hasi eta atzo bertan sortutako soinetara arte, tresna bikaina dugu orkestra gizakion sormen eta inspiraziorako. Orkestra sinfonikoen denboraldiek garai bakoitzean sortutako musikarik onenaren zenbait adibide erakusteko helburua izaten dute; hala ere, XIX. mendeko musika erromantikoa hartu dute, funtsean, grabitate-zentro gisa. Dena den, azken urteotan grabitate-zentro hori aurrera mugitu da.

XX. mendeak erabateko haustura ekarri zuen aurreko bi mendeetan jaun eta jabe izandako konposizio-arauekiko, entzuleei esperientzia musikal ugaria proposatuz. Bat-batean, musika popularra eta haren generoak agertu ziren (jazz, rocka, popa, etab.). Bestalde, “musika klasikoak” joerak eta eskolak modu frenetikoan lotu zituen, eta konpositore bera posterromantikoa, espresionista, serialista edo neoklasikoa izan zitekeen bere sorkuntza-bizitzan zehar. Arau harmonikoak zalantzan jartzea da, beharbada, haustura horren faktorerik nabarmenena, baina alderdi horri garrantzi txikiagoko beste faktore batzuk gehitu behar zaizkio, besteak beste: esperimentazio erritmikoa, tinbre berriak barne hartzea (perkusion-tresnek protagonismoa hartuko dute) edo soinu-paletan elektronika sartzea. Horren guztiaren ondorioz, soinu mosaiko bikaina osatu zen, oso anitza, entzuleek, askotan, harriduraz hartu izan dutena. Artea bere garaiko gizartea irudikatzen duen kuboan bustitzen den belakia bada, XX. mendeko musika gizateriaren une nahasi bati emandako erantzuna da. Une historiko hartan, gainera, gaur egun ehun urte bete dituzten orkestrak sortu eta garatu ziren, gurea kasu. Nolatan ez genuen musika horrekin inolako zerikusirik izango?

Bilbao Orkestra Sinfonikoaren 2023-2024 denboraldiak, ohi bezala, hainbat garai eta estilotako obrak biltzen ditu, baina XX. mendean argitaratutako funtsezko pieza batzuk hartu ditu ildo nagusitzat, mende horretan sortutako askotariko korronteen frogagarri direnak. Obra batzuek berehalako arrakasta izan zuten, beste batzuek, ordea, denbora gehiago behar izan zuten asimilatuak izateko, baina guztiak ere XX. mendeko klasiko bihurtu ziren. Obra horietako batzuekin ziklo tematiko txiki bat osatu dugu (Gustav Holst-en *Planetak*, Bartók eta Lutoslawski-ren *Orkestrarako kontzertuak* eta Mahler-en *Bosgarren sinfonia*), baina denboraldian zehar beste adibide batzuk ere izango dira, hala nola Dutilleux-en *Tout un monde lointain...*, Messiaen-en *L'Ascension*, Prokofiev-en kontzertuak -beste ziklo txiki batekin (pianorako bigarrena eta biolinerako konposatu zituen beste bi)- eta Xostakovitx-en sinfonismoa, non haren *10. sinfonikoa* entzungai izango dugun. Aipamen berezia merezi du György Ligetiren figurak, eta arreta berezia eskainiko diogu bere mendeurrenaren urtean.

Abonu tematikoa XX Century Classics: 2, 4, 10, 14

György Ligetiren 100 urte

Ligetiren bizi-esperientziak ondo baino hobeto laburbiltzen du XX. mendeak izan zuen izaera zalapartatsua. Garaiaren arabera, Hungaria eta Errumaniaren artean banatutako leku batean jaioetako judu ez-praktikante honek aita eta anaia galdu zituen nazien kontzentrazio-esparruetan eta ozta-ozta salbatu zuen bere burua, lehenik hungariar armadarako lan eginez, matematikan zuen ezagutzari esker, eta, ondoren, frontetik desertatuz eta etxera ihes eginez, errusiar familia batek okupatuta aurkituko zuena. Egonkortasuna urte batzuk geroago aurkituko zuen Austrian, non musika korronte esperimentalenak sakonean ezagutu zituen. Tradizioaren eta abangoardiaren arteko borrokaren aurrean izan zuen jarrera esaldi batean laburbiltzen da: "Abangoardiara ez itzultzeko eta abangoardiarekin aurrera ez egiteko modu bat aurkitu behar dugu. Kartzela batean nago: horma bat abangoardia da, bestea iragana, eta ihes egin nahi dut". Eta berriro ere, ihes egitea lortu zuen. Stanley Kubrickekin batera lan egiteari esker, haren ahots pertsonala publiko zabalera iritsi zen.

Ligetiren mendeurrenaren urtean udazken ligetiar bat ospatuko dugu. Horretarako, musikagilearen hiru piezarik ospetsuenak gure abonamenduko hiru kontzertuetan sartuko ditugu, hain zuen ere, bere musika aparteko egin zuten zeinuak laburbiltzen dituztenak: mikropolifonia (osotasun trinko eta zeharkaezin baten gisara entzuten diren ahots indibidual ugari), soinu-klusterrak (aldi berean entzuten diren alboko nota-multzok), musika-diskurtsoaren izaera estatikoa eta, oro har, musika-idea oso sinpleen bidez emaitza oso konplexuak lortzea. *Lontano* enblematikoa, harirako *Ramifications* eta *Lux Aeterna* hipnotikoa eskainiko ditugu KEA ahots-taldearekin.

Anton Brucknerren 200 urte

2024an beste efemeride musikal bat ospatuko dugu: Bruckner jaio zeneko 200 urte. Ansfeldeneko organo-jotzailearen figura aldizka agertu izan da BOSen programazioetan, azken urteotan batez ere, Juanjo Menak, Günter Neuholdek eta Erik Nielsenek haren musikarekiko sentitu duten kidetasunari esker. Brucknerren sinfoniarik ezagunena eskainiko dugu, *Laugarrena*, eta horren aurretik beste konpositore-organista handi baten, Olivier Messiaen, musika izango dugu entzungai, Ludovic Morlot zuzendari ospetsuaren gidaritzapean. Brucknerren musikaren ospakizun hori ganbera denboraldira ere iritsiko da.

Trukea Espainiako Orkestra Nazionalarekin

Denboraldiak hitzordu garrantzitsu bat izango du martxoan, Auditorio Nazionale bisitatuko baitugu, Espainiako Orkestra Nazionalarekin (ONE-Orquesta Nacional de España) egindako truke-akordio bati esker. Egitarau bikaina izango da, gure konpositoreen musikarekin (Ravelen *Boleroa* eta Andrés Isasiren *Orakulua*) eta gure lurraldeko bakarlariarekin osatutakoa (Asier Polok Straussen *On Kixote* interpretatuko du), hori guztia Giancarlo Guerreroren zuzendaritzapean. Programa hori hurrengo astean errepikatuko dugu gure abonamenduko denboraldian.

Aurreikuspenen arabera, Espainiako Orkestra Nazionalak 2025eko urtarrilean itzuliko digu bisita Bilbon.



Ahotsa, beti protagonista

Erik Nielsen denboraldietan ahotsaren presentzia oso ohikoa izaten da, eta oraingoan lau programatan izango du protagonismoa: Koru-programa anbiziotsu bat, San Juan Bautista Abesbatzarekin, zeinak *Earth Symphony* obraren Europako estrainaldia eskainiko digun, 2022an EMMY bat irabazitako Jake Runestad konpositoreak sortutakoa; Olesya Golovneva sopranoaren *tour de force* bat, Rusalkaren ariekin, zehazki, Eugene Onegin-en gutunaren eszena eta Elisabetta de Don Carlo-ren eszena handia; Gabonetan entzungai izango dugun Poulenc-en *Gloria*, Katharina Ruckgaber sopranoarekin eta Bilboko Koral Elkartearen ahotsekin, eta, azkenik, Tim Mead kontratenoraren ahots bikaina, gure BOSbaroque formatuan.

Zuzendarien belaunaldi berri bat

Programazioak aurpegi berri ugari ditu orkestra-zuzendaritzan. Abonamenduko kontzertuetan orkestra zuzentzeko ardura beren gain hartzeko prestatuta dauden gazteak dira. Denboraldi honetan, Isabel Rubio murtziarrak, Chloé van Soeterstède frantziarrak, Pablo Rus Broseta valentziarrak eta Yue Bao txinatarrak egingo dute debuta. Eskarmentu handiagoko beste izen batzuk ere izango ditugu gurean, hala nola Nacho de Paz, Daniele Squeo, Pedro Gandía interpretazio historizistan aditua eta Samy Moussa kanadarraren figura interesgarria, konpositore eta zuzendari lanetan. Horiekin batera, ibilbide luzeko batutek denboraldia egituratuko dute, hala nola gure zuzendari titularra den Erik Nielsen, Giancarlo Guerrero, Pablo González, Ludovic Morlot eta Leonard Slatkin.

Bakarlarien nominan ere izen garrantzitsuak izango dira: Emmanuel Pahud, munduko flautista ospetsuenetako bat; Jan Lisiecki eta Alexander Katorow piano-jotzaileak; Martín García gazte eta harrigarria; Jussen anai bizigarrien itzulera; Alena Baeva, Esther Yoo eta Karen Gomyo biolin-jotzaileak (Samy Moussaren “*Adrano*” kontzertuarekin); Johannes Moser biolontxelo-jotzaile bikainaren itzulera, eta, azkenik, gure haize-bakarlarien laukotea, Mozarten *Sinfonia kontzertantea* interpreta-tuko dutenak.

Isabel Urrutiaren Urkiola

XXI. mendeko musikak ere garrantzi handia hartuko du, Isabel Urrutia getxoztar konpositoreak idatzitako *Urkiola* obraren estreinaldiarekin, zeinak “world timbres mixture” teknika darabilen; Unsuk Chin korear konpositorearen *Subito con forza* bolkanikoarekin, Samy Moussa-ren *Biolinerako kontzertuekin* eta Juke Runestad-en *Earth Symphony* lanarekin.





Erik Nielsen
BOseko Zuzendari Titularra

Denboraldi Sinfonikoa 2023-2024

🕒 Kontzertu guztiak 19:30etan izango dira

📍 Palacio Euskalduna Jauregia
(Bilbao). Auditoriuma

Programazio hau alda liteke. Baldintza orokorrak ikusteko www.bilbaorkestra.eus

▶ Hastapeneko abonua

▶ XX Century Classics



© Stefano Galuzzi

01 irailak 28-29

R. Wagner: *Tannhäuser*, obertura

S. Prokofiev: *Piano eta orkestrarako 2. kontzertua*, op. 16

P.I. Tchaikovsky: *Beltxargen aintzira*, suite Op. 20a

Jan Lisiecki, pianoa

Erik Nielsen, zuzendaria



© Pablo Albacete

02 urriak 05-06

G. Ligeti: *Lontano*

J. Runestad: *Earth Symphony*

G. Holst: *The planets*

San Juan Bautista Abesbatza (**Basilio Astúlez**, zuzendaria)

Nacho de Paz, zuzendaria



© Kerstin Kühne

03 urriak 19-20

A. Dvorák: *Eguerdiko sorgina, op. 108*

A. Dvorák: *Ilargiari abestia, Rusalkarena*

G. Verdi: *Ballet musika, Don Carlosena*

G. Verdi: *"Tu che la vanità", Don Carlorena*

P.I. Tchaikovsky: *Eugene Oneginen hautaketa*

P.I. Tchaikovsky: *Gutunaren eszena, Eugene Oneginena*

Olesya Golovneva, sopranoa

Erik Nielsen, zuzendaria



© Anita Torres

04 azaroak 02-03

G. Ligeti: *Ramifications*

W.A. Mozart: *Haize-instrumentuetarako sinfonia kontzertantea K. 297b*

B. Bartók: *Orkestrarako kontzertua*

Nicolas Carpentier, oboea

Carlos García, klarinetea

Pedro Pardo, fagota

Luis Fernando Núñez, tronpa

Isabel Rubio, zuzendaria



© Diamond's Edge

05 azaroak 30 - abenduak 01

L.van Beethoven: *Piano eta orkestrarako 4. kontzertua sol maiorrean, op.58*

D. Shostakovich: *10. sinfonia, op. 93*

Jaeden Izik-Dzurko, pianoa

Pablo González, zuzendaria



06 abenduak 14-15

I. Urrutia: *Urkiola, orkestra sinfonikorako eta digitalizatutako folklore-instrumentuen orkestrarako*
(Erabateko estreinaldia. SGAE Fundazioaren eta AEOS-en enkargua)

H. Dutilleux: *"Tout un monde lointain..."* biolontxelo eta orkestrarako

G. Ligeti: *Lux Aeterna*

W.A. Mozart: 39. sinfonia mi maiorrean K. 543

Johannes Moser, biolontxelo

Kea Ahots Taldea, (Enrique Azurza, zuzendaria)

Erik Nielsen, zuzendaria



07 abenduak 21-22

Gabonetako kontzertua

G. Tailleferre: *Petite suite*

N. Rota: *La Strada, suite*

O. Respighi: *Fontane di Roma*

F. Poulenc: *Gloria*

Katharina Ruckgaber, soprano

Sociedad Coral de Bilbao (Enrique Azurza, zuzendaria)

Daniele Squeo, zuzendaria

© Felix Grünschloß



08 urtarrilak 11-12

Lili Boulanger: *D'un matin de printemps*

S. Prokofiev: *Biolin eta orkestrarako 2. kontzertua sol minorrean, op. 63*

R. Schumann: 2. sinfonia Do Maiorrean, op. 61

Alena Baeva, biolina

Chloé van Soeterstède, zuzendaria

© Vladimir Shirokov



09 urtarilak 18-19

O. Messiaen: *L'Ascension*

A. Bruckner: 4. sinfonia mi bemol maiorrean

Ludovic Morlot, zuzendaria



10 otsailak 01-02

W. Lutoslawski: Orkestrarako kontzertua

S. Rachmaninov: Piano eta orkestrarako 3. kontzertua
re minorrean, op. 30

Martín García García, pianoa

Pablo Rus Broseta, zuzendaria



11 martxoak 07-08

Unsuk Chin: *Subito con forza*

S. Prokofiev: Biolin eta orkestrarako 1. kontzertua
re maiorrean, op. 19

F. Mendelssohn: 3. sinfonia la minorrean, op. 56 "Scottish"

Esther Yoo, biolina

Yue Bao, zuzendaria



12 martxoak 21-22

R. Strauss: *Don Quijote, op. 35*

A. Isasi: *El oráculo*

M. Ravel: *Bolero*

Asier Polo, biolontxelo

Giancarlo Guerrero, zuzendaria



13 apirilak 11-12

C. Nielsen: *Helios, obertura*

A. Dvorak: *Romanza biolin eta orkestrarako, op. 11*

S. Moussa: "Adrano" piano eta orkestrarako kontzertua

A. Dvorák: *Sinfonía nº 7 en re menor, Op. 70*

Karen Gomyo, biolina

Samy Moussa, zuzendaria



14 apirilak 18-19

C. Nielsen: *Flauta eta orkestrarako kontzertua*

W.A. Mozart: *Andante do maiorrean, flauta eta orkestrarako K. 315*

G. Mahler: *5. sinfonia do minor sostenituan*

Emmanuel Pahud, xirula

Erik Nielsen, zuzendaria



© Sasha Gusov

15 apirilak 25-26

A. Schonberg: *Orkestrarako bost pieza, op. 16*

M. Ravel: *Ezker eskurako kontzertua, re maiorrean*

R. Strauss: *Heroiaren bizitza bat, op. 40*

Alexandre Kantorow, pianoa

Erik Nielsen, zuzendaria



© Benjamin Ealovega

16 maiatzak 16-17 BOSbaroque

Leclair, Händel, Vivaldi, Geminiani eta Boccheriniren
kontratenorarentzako obrak eta ariak

Tim Mead, kontratenorra

Pedro Gandía, kontzertino zuzendaria



© Marco Borggreve

17 ekainak 06-07

S. Barber: *Overture to The school for scandal*

W. A. Mozart: *Bi piano eta orkestrarako kontzertua*
mi bemol maiorrean, KV. 365


J. Brahms: *1. sinfonia do minorrean, op. 68*

Lucas & Arthur Jussen, piano duetoa

Leonard Slatkin, zuzendaria


EZOHIKO ERREZITALDIA

PIANDEZ LAGUNDUTAKO
ABONUZ KANPOKO ERREZITALDIA



2024ko ekainaren 2a | Palacio Euskalduna Jauregia
19:30ean

Gure DENBORALDIKO ZENBAIT PROTAGONISTA





Esther Yoo

© Je Won Kim



Samy Moussa

© Geneviève Caron



Masaaki Suzuki

© Marco Borggreve



Chloe Van-Soeterstede

© Olivia Da Costa



Johannes Moser



© Sasha Gusov

Alexandre Kantorow

Ganberako Denboraldia 2023-2024

Bruckner, Ligeti, Bakarlari handiak kantaldian eta gure ganbera-taldeak

Ganbera-denboraldian György Ligeti eta Anton Brucknerren urtemugak ere ospatuko ditugu, Ligetiren tronpa, biolin eta pianorako trioarekin eta Brucknerren harietarako kintetoarekin, baita Erwin Steinek ganbera-talderako murritz duen Brucknerren 7. sinfonia interesgarriarekin ere.

Denboraldi sinfonikoko bakarlari batzuk gure ganbera-denboraldira gonbidatzeko ohiturari jarraituz, Johannes Moserren (biolontxelo eta pianoa), Jussen anaien (piano-duetoa) eta Alena Baeva biolin-jotzailearen errezitaldiak izango


ditugu BOSeko beste kide batzuekin batera, hain zuzen ere, "Solista handiak BOSekin batera" formatuaren baitan.

BOSeko ganbera-taldeek hainbat proposamen egingo dizkigute: emakume musikagile frantsesen programa erakargarri bat, operako konpositore ospetsuen ganbera-arloko bi adibiderekina batera; Zelenka eta Bach protagonista dituen programa barroko bat; musikaren umoreari eskainitako proposamen bat, Schnittke eta Mozartekin, eta erreperitorio handiko obrak, hala nola Brahmsen Sestetoa.

① Kontzertu guztiak 19:30etan izango dira.

📍 Palacio Euskalduna Jauregia
(Bilbao). OB Aretoa

Programazio hau alda liteke. Baldintza orokorrak ikusteko www.bilbaorkestra.eus



György Ligeti

01 urriak 16

G. Ligeti: *Biolin, tronpa eta pianorako trioa*


BOSen hirukotea

R. Strauss: *Till Eulenspiegel*

BOSen boskotea

B. Martinu: *2. nonettoa*

BOSen bederatzikotea



Aita Donostia

02 azaroak 20

Aita Donostia: *Sagar dantza*
A. Bruckner / E. Stein: 7. sinfonia

BOSen ensemblea

© Sarah Wijzenbeek



03 abenduak 18

Bakarlari handiak Errezitaldian

N. Boulanger: *Trois pièces*
B. Martinů: *Biolontxelo eta pianorako 2. sonata*
S. Rachmaninov: *Biolontxelo eta pianorako sonata, op. 19*
F. Poulenc: *Biolontxelo eta pianorako sonata, FP 143*
B. Martinů: *Rossiniren tema baten inguruko bariazioak*

Johannes Moser, biolontxelo
Andrei Korobeinikov, pianoa

© Vladimir Shirokov



04 urtarrilak 15

Bakarlari Handiak BOSein

Alena Baeva, biolina
BOSen laukotea



Bedrich Smetana

05

otsailak **05**

B. Smetana: 1. hari-kuartetoa mi minorrean "Nire bizitzakoa"

BOSen hari-laukotea

A. Bruckner: Hari-kintetoa Fa Maiorrean

BOSen hari-boskotea




Pauline Viardot



Lili Boulanger



Cécile Chaminade



Nadia Boulanger

06

martxoak **04**

"EMAKUMEAK": Frantziako XIX. mendeko emakume konpositoreak


Obras de Nadia Boulanger, Lili Boulanger, Cécile Chaminade y Pauline Viardot

BOSen soprano, xirula eta harpa hirukotea

G. Puccini: "Crisantemi", hari-laukoterako

G. Verdi: Hari-kuartetoa mi minorrean

BOSen hari-laukotea



Arvo Pärt

07

apirilak **08**

A. Part: Frates

Daniel Wohl: Exchange


BOSen hari eta perkusio ensemblea

Michel Bert: Kintetoa Frank Zappari, gitarra, oboe, biolin, kontrabaxu eta marinbarako

BOSen boskotea

J. Brahms: Harietarako sestetoa si bemol maiorrean, op. 18

BOSen hari-seikotea



Alfred Schnittke

08 apirilak 29

A. Schnittke: *Boskotea pianoarekin*


BOSen boskotea pianoarekin

A. Schnittke: *Moz' Art à la Haydn*

BOSen hari-ensemblea

W. A. Mozart: *Ziri musikal bat, KV 522*

BOSen hari eta haize ensemblea



J. S. Bach

09 maiatzak 20

J. D. Zelenka: *6. trio sonata, bi oboe, fagota eta baxu jarraiturako do minorrean*

J. S. Bach: *3. sonata re minorrean*

BOSen ensemble barrokoa

J.S. Bach: *Brandenburgoko 3. kontzertua sol maiorrean*

J.S. Bach: *Brandenburgoko 6. kontzertua si bemol maiorrean*

BOSen ensemble barrokoa

© Marco Borggreve



10 ekainak 03

Bakarlari handiak Errezitaldian

Lucas & Arthur Jussen, piano duetoa

ABONU MOTAK

Denboraldi osorako abonua (17 kontzertu)

Denboraldi osorako abonua aukera ematen du deskontu handia izateko (txartel solteekin alderatuta), BOSe denboraldian eskaintzen dituen 17 kontzertu sinfonikoez gozatzeko.

Abonu tematikoa. XX Century Classics (4 kontzertu)

Egitarauak: 2, 4, 10, 14

XX. mendeak erabateko haustura ekarri zuen aurreko bi mendeetan jaun eta jabe izandako konposizio-arauekiko, entzuleei esperientzia musikal ugaria proposatuz. "Musika klasikoak" joerak eta eskolak modu frenetikoan lotzen ditu. Arau harmonikoak zalantzan jartzea da, beharbada, haustura horren faktorerik nabarmenena, baina alderdi horri garrantzi txikiagoko beste faktore batzuk gehitu behar zaizkio, besteak beste: esperimentazio erritmikoa, tinbre berriak barne hartzea (perkusio-tresnek protagonismoa hartuko dute) edo soinu-paletan elektronika sartzea.

Bilbao Orkestra Sinfonikoaren 2023-2024 denboraldiak, ohi bezala, hainbat garai eta estilotako obrak biltzen ditu, baina XX. mendean argitaratutako funtsezko pieza batzuk hartu ditu ildo nagusitzat, mende horretan sortutako askotariko korronteen frogagarri direnak. Obra batzuek berehalako arrakasta lortu zuten, beste batzuek, ordea, denbora gehiago behar izan zuten asimilatuak izateko, baina guztiak ere XX. mendeko klasiko bihurtu ziren. Denboraldi honetan entzungai izango ditugun obra batzuekin ziklo tematiko txiki bat osatu dugu, ondoko kontzertuak barne hartuko dituenak: Gustav Holst-en *Planetak*, Bartók eta Lutoslawski-ren *Orkestrarako kontzertuak* eta Mahler-en *Bosgarren sinfonia*.

Hastapeneko abonua (6 kontzertu)

Egitarauak: 2, 3, 7, 11, 12, 15

Hastapeneko abonua aukera ematen du zaleek zaletu nahi dutenek gozatzeko moduko sei kontzertu ikusteko aukera izatea. Era askotako kontzertuak dira, baina berehalako gozamenarekin emateko baterako helburua dute, baita musika sinfonikoaren munduan sartzekoa ere.

Abonua nahierara - 6 (6 kontzertu)

Nahierako abonua aukera ematen du sei kontzertu hautatzeko abonua labur propioa prestatu nahi duten zaleei.

Abonua nahierara - 9 (9 kontzertu)

Nahierako abonamenduaren bidez, zaleek bederatzi kontzertu aukeratu ditzakete haien abonamendu labur propioa egiteko.

PREZIOAK

Denboraldi Sinfonikorako ABONUAK

Abonu Arrunta	Kontzertuak	A+	A	B	B hegala*	C	C hegala*
Abonu Osoa	17	366,86 €	337,45 €	266,90 €	240,89 €	135,15 €	122,40 €
Hastapen-abonua	6	-	136,26 €	104,82 €	94,62 €	77,82 €	70,38 €
Abonua nahierara-6	6	-	143,22 €	108,06 €	97,44 €	81,60 €	73,68 €
Abonua nahierara-9	9	-	213,39 €	162,09 €	146,25 €	122,40 €	110,52 €
Abonu tematikoa	4	-	103,08 €	71,76 €	64,76 €	54,80 €	49,48 €

Abono Gazteak (<30)

Abonu Osoa	17	129,88 €	129,88 €	93,33 €	84,83 €	81,94 €	74,63 €
Hastapen-abonua	6	-	48,48 €	36,12 €	32,76 €	26,22 €	23,94 €
Abonua nahierara-6	6	-	50,94 €	37,02 €	33,60 €	27,84 €	25,32 €
Abonua nahierara-9	9	-	76,50 €	55,62 €	50,40 €	41,76 €	37,98 €
Abonu tematikoa	4	-	34,20 €	25,44 €	23,08 €	19,24 €	17,52 €

Denboraldi Sinfonikorako SARRERAK

	A+	A	B	B hegala*	C	C hegala*
Sarrera Arrunta	32,60 €	29,41 €	20,75 €	18,80 €	15,91 €	14,42 €
Gazteak sarrera (<30)**	10,25 €	10,25 €	7,78 €	7,06 €	5,92 €	5,41 €
Azken Ordua***	16,30 €	14,70 €	10,38 €	9,40 €	7,96 €	7,21 €
Credibos	-	145,50 €	103,20 €	-	79,50 €	-

Ganberako Denboraldia

	ABONUAK		SARRERAK	
	NORMALA	GAZTEAK 30 urterarte	NORMALA	GAZTEAK 30 urterarte
Denboraldi Sinfonikoan Abonatuak	56,80 €	28,40 €	11,18 €	6,03 €
Denboraldi Sinfonikoan Abonatu Gabeak	90,70 €	45,40 €	11,18 €	6,03 €

* Eserleku hauen ikuspena murrizta da.

** Gazteentzako prezio bereziak txartel-leihatilako salmentan baino ez dira aplikatzen.

*** Sarrera-kopuru mugatua.

Prezio horiek baliozkoak dira, tipografia-arazoez eragindakoak direnean salbu. BEZ barne.

SALMENTEN EGUTEGIA

Abono berrien salmenta

Denboraldi osorako abonuak:

Ekainaren 29tik aurrera

Abonu laburrak

Ekainaren 28tik aurrera

Sarrerren salmenta

Irailaren 11tik aurrera izango dira salgai kontzertuetarako sarrera solteak

- www.bilbaorkestra.eus
- Euskaldunako txartel-leihatilak

PREZIO BEREZIAK

Gazteentzako abonua eta sarrerak

30 urtera arteko gazteek deskontu handiak dituzten prezio berezietan erosi ahal dituzte abonua eta sarrerak (ikusi abonuen eta sarrerren taula).

Prezio bereziak langabe eta familia ugariarentzat

Talde hauei dagokienez, prezio berezia sortu dugu sarrera solteetarako. Sarrera horiek %50eko deskontua izango dute euren prezio ofizialarekiko.

Taldeentzako deskontuak

Taldeentzako deskontu mota bi eskaintzen ditugu. Bata, %20koa, 7 eta 14 leku bitartean okupatzen dituzten taldeentzat; eta beste bat, %25koa, 15 lagun edo gehiagoz osatutako taldeentzat.

CrediBOS

Denboraldi honetan sarrerak aldeztu aurretik erosteko sistema hau berreskuratu dugu, eta sarrerren prezio ofizialaren gaineko % 20ko deskontua eskainiko dugu. **CrediBOS**ek musika klasikoaren zaletuari aukera ematen dio denboraldiak aurrera egin ahala entzun nahi dituen kontzertuak aukeratzeko, baita talde txikiei deskontu interesgarri bati hartzeko aukera eman ere.

Hastera doan denboraldirako, **CrediBOS**ek sei sarrera izango ditu eta kontzertu baterako edo gehiagorako erabili ahal izango da.

DENBORALDI BERRIARI BURUZKO DATA NAGUSIAK

Denboraldiaren hasiera eta amaiera

Hasiera: 2023ko irailak 28

Amaiera: 2024ko ekainak 7

DENBORALDI SINFONIKOAREN DATUAK

17 egitarau

34 kontzertu

28 bakarlari eta zuzendari

2 egitarau sinfoniko-koral San Juan Bautista Abesbatzarekin
eta Bilboko Koral Elkartearekin (2. eta 7. zenbakiak)

4 egitarau XX Century Classics zikloaren baitan
(2., 4., 10. eta 14. zenbakiak)

3 egitarau G. Ligetiren obrekin,
haren jaiotzaren mendeurrena gogoratzeko (2, 4 eta 6)

2 egitarau M. Ravelen obra handiekin: Boleroa (12. zenbakia)
eta Ezker eskurako kontzertua, re maiorrean (15. zenbakia)

Irekiera-kontzertu 1, Jan Lisiecki piano-jotzailearekin

Gabonetako egitarau 1 (7. zenbakia)

Egitarau 1 Samy Moussa zuzendari eta musikagilearekin,
bere lanetako bat zuzenduko duena (13. zenbakia)

Egitarau barroko 1 (16. zenbakia)

Amaierako kontzertu 1



Bilbao
Orkestra
Sinfonikoa



BESTELAKO JARDUERAK

BOSen gainerako jarduez gain (Ganberako Denboraldia Bizkaian edo Kontzertu Didaktikoak eta Familian programaren Denboraldia -dagokionean emango da horren berri-), BOSek zenbait konpromiso hartu ditu aldi honetarako:

2023ko ABUZTUA

Kontzertuak Bizkaian zehar. Lekeitio

Aste Nagusia. Bilbo

Donostiako Musika Hamabostaldia

2023ko IRAILA

Grabazioa, Bilboko Koralaren «Euskal Opera» proiektuaren baitan

Soriako Udazken Musikala. Irailak 7

Musikagileak. Campos antzokia. Bilbo Irailak 21

2023ko URRIA

Ura Bere Bidean 23. BEC. Barakaldo Urriak 28

2023ko AZAROA

ABAO - L'elisir d'amore. Bilbo Azaroak 18-21-24-25-27

2023ko ABENDUA

La Caixaren kontzertu parte-hartzailea. Bilbo Abenduak 5

2024ko OTSAILA

ABAO - Rigoletto. Bilbo Otsailak 17-20-23-26

2024ko MARTXOA

Musika-Música. Bilbo

OCNEren denboraldiko kontzertuak. Auditorio Nazionalea. Madril Martxoak 15-16-17

2024ko MAIATZA

ABAO - La Bohème. Bilbo Maiatzak 18-21-24-27

2024ko EKAINA

Yuja Wang-en piano errezitaldia. Bilbo. Ekainak 2



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa



Bilbao

Palacio Euskalduna Jauregia
Abandoibarra etorbidea, 4 - 48011 Bilbo
Tf. 94 40 35 205
e-maila: abonados@bilbaorkestra.eus



www.bilbaorkestra.eus

